

Mark, anarkista

Emilio LOPEZ ADAN

«Jaun gabe eta legerik ez». Hitz hauek Markenak dira: «Paroles d'un anarchiste basque» bere liburua bururatzeko. Duela berrogeita hamar urte argi eta garbi esan zuen anarkista zela, eta geroztik bere bandera beltzarekin jarraitu du.

Anarkistak ez dira oso ugariak izan abertzaleen artean. Bihirik ez PNVren ondoan: jeltkideak ordenukoak, jaungoitiarrak eta administraziozaleak dira. Gutxi ezkerrean ere; ETAren inguruko mugimendua, oro har, estatuzalea da. Estatuak, nahi bada, herriaren zerbitzurako eta Euskadiko independentzia begiratzeko, baina estatua, azkarra, beharrezkoa. Ezkerrean izandako esperientzia libertarioa, autonomoena, denboraz eta jendeaz mugatua izan da. Eta, paradoxa badirudi ere, azken urte hauetako bi pertsonaia anarkista ezagunenak, Felix Likiñano eta Mark Legasse, ETAren ondoan ibili dira. Seguruena, sendimendu abertzale sakonek eraman dituzte naziotasunaren aldetik esankorrena zen mugimendua sostengatzen.

Dudarik gabe, Marken anarkismoak lotura handia dauka eskal historiari eta nortasunaz duen ikuspegiarekin. Harentzat, Estatuak ez da euskalduna, ez dagokio euskal senari. Gure herriaren sena autogestioa da, indibiduala eta komunitatearena, demokrazia zuzenaren bidez gauzatua. Espainia eta Frantziako estatuak Euskal Herria okupatu dute eta gobernatzen saiatzen dute; Markek okupazioa eta gobernu gorrotatzen ditu, biok. Eta bere erreboltak ez die lekuri uzten estatu eta gobernuari, libre izateko, euskaldunak ez ditu tresna higuin-garri horiek bere zerbitzutan ezarri behar, ez: kutsadura hori kanpora bota beharko du, okupazioarekin batera.

■ Errebolta

Gauzak oso ongi lotzen dira Mark Legasserren pentsakeran. Bere anarkismoaren oinarrian indibidualismoa aurkitzen dugu, eta honen batera estatu eta administrazioari gorrotoa. Anarkismo klasi-koan jarraera desberdinak dira, eta Markenak ez du bere oinarria sin- dikalismo langile iraultzaileen (CNT bezalako) baizik eta askatasun indibidual eta erreboltatuen. Markek indibidualismoa euskal senarekin lotzen du, eta errebolta bere herriak pairatzen duen okupazioa atzeritarrean elikatzen du. Honela, euskalduntasuna eta anarkia uztartzen dituen zirkulua marratzen du.

Indibiduala naturarekin lotzen du. Estatuak, artificio eta mediazioarekin. Beraz, errebolta gauza naturala da. Bere hitzetan, jendeak badu «erreboltatzeko instintoa», gutziz naturala, berez justifikatzen dena: menperatua denak badu jazaritzeko eskubide naturala eta delako eskubideak armak hartzea ere justifikatzen du. Ikuspegi honek iraunkortasuna eta freskotetasun handia ematen dizkio bere pentsakerari. Euskadiko borroka zilegia zela onartarazteko, «progresista», «langilea», «antiimper-

lista», «marxista» edo «nikdakita zerista» dela frogatu nahi izan duten testu eta pentsakera astunaz eta kointuralaz paso egiten du alai: zanpatzen gaituzte, erreboltatu gara, eta libre izan arte jazarituko gara. Pentsatzeko modu hau gutziz libertarioa da.

Estatuari eta administrazioari dien gorrotoa nabaria da. Edo, hobeto esanda, Estatuak gorrotatzen du eta Estatuaren zerbitzariak oro, deputatu edo jendarme, hautetsia edo txakurra, berdin ezartzen ditu errikidulu gorriean. Luma arrunt satirikoak du, umorez beteak, eta gupida gabarik erabiltzen du. Estatuaren ankerkeria, berriaz, era sentiberaz eta zorrotz salatzen du. Herriek sofitzen dutena sakonki sentitzen duela bistan da.

■ Hitz gogorak

Baina, pentsalari argia denez, ez dio ezer barkatzen sistema onartzen eta sostengatzen duen herriari. Hauteskundeen sistema eta boterearen delegazioa arbuatzen ditu, bainan bozkatzailen erantzukizunaz ez da ahazten. Era bizi-biziaz erakusten digu zertan dagoen jauntxoaren boterea: azpian diren jendeen tontokeriaren gainean finkatua da. Markek hitz gogorak zuzentzen dizkie zanpatazailen baloreak bereganatu dituzten euskaldun herritarrei; arbasoen libertateak eta hizkuntza mesprezatzen dituzte, abertzaleak eta erreboltatuak iraintzen eta persegutatzen dituzte. Mihina bilorik gabe, jauntxoek eta herritar horiek dituzten haren triste eta lotsagarriak salatzen ditu. Beren haurrei euskara transmititu ez dien ordenuko «eskualdun onek» hitz gogor horiek eta ipurdian bi ostio ere merezi dituzte.

Anarkista dela eta, Markek leporatu diote ideiak zabalatzeko «inefikatzaia». Leninek nahi zuen bezala ez du lanik egin ez, baina erreboltaren mezua entzunarazi du. Hauteskundeak, adibidez, erabili ditu hauteskundeen sistema barregarri geratzeko. Eta, irrien artean, separatista dela utzi du garbi. Hitz honetan ez du soilki probokazioaren gata ezarri. Hortarako arte berezia izan du beti, baina mezua askoz sakonagoa da.

Ez du inoiz esan nazionalista dela. Jeltkideen nazionalismoaz ase zegoen. Nazio-estatuaren ideia, Euskadira «kutsadura ideologikoa» dela esan du; estatu-nazioa mauka ona da gobernatu nahi dutenentzat, eta PNVren burgesek gobernatu nahi gaituzte, burgesak direlako eta Espainiako balore estatualista eta menperatzaileak euskaldunen sen libertario eta autogestionarioa baino gehiago maite dituztelako. Arrazoin doblea nazionalismo estatualistari ezetz esateko. Mark separatista da.

Separatista izateak, bi esanahi hartzen ditu. Lehena, Espainia eta Frantziatik separatu. Eta harekin batera, administratu, gobernatu eta izorratu nahi gaituzten balore estatualistatik aldentu. Honetan da Mark Legasse bi aldi separatista, eta honela biltzen ditu, berriaz ere, abertzaletasuna eta anarkia.



Marc (ezkerrean), Luis Arana eta Jacques anaia. Behean, parte hartu zuen gose grebetako bat.

ARTXIBOKOA

Lekuko eta zubi

TXILLARDEGI

Oso zail gertatzen zait Mark Legasserren irudia lerro gutxitara biltzea.

Abertzaletasunaren historian, Mark zubi izan da behin eta berri. Jatorriz, bizilekuz eta jokabidez, Ipararra eta Hegoarra izan da Mark batera. Gerla-garaiak (oraindik alemanak erretiratuak ez direlarik hasi baitzen «Aintzina», Aita Lafitterekin eta Xarritonekin, bultzatzen); eta ETAren garaikoa (zurrumurruek dienez, Eva Forrestek Ziburuko «Perico Baitan» idatzi zuen Carrero Blancori buruzko liburua). PNVren inguruko (Sota batekin ezkondu baitzen); eta libertario sutsua (baita marxismo-leninismoak bere gailurra iritsi zuen urteetan ere).

1960ko hamarkadan lotura estua izan zuen F. Kruttwig

«Vasconia» liburu burrunbatsuren autorearekin; baina hori, jakina denez, Luis Arana-Goiri desherrituarekin, eta beste «Jagi-jagi» ezagun batzuekin, harremanak izan ondoren.

Gerla amaiztean, eta Etxeberri-Ainxart notari baxenabartarrekin esku esku, Iparraldeko Autonomi Estatutua prestatu zuen. Baita gartzela ezagutu ere (1945ean hori!). IRAkoen jokabidea hartuz, gose-greba egin zuen.

Gauza berbera egin zuen handik 25 urtetara Baionako Katedralean: mementu hartako ETAKo buruzagi ezagunekin (Pérez Revilla, Eustakio, «Txapela» Goikoetxea, J.J. Etxabe) eta Teleforo Montzonekin, beste gose-greba bati (eta ez bakarrik!) ekin zionean.

Literatur kultura handiko gizona, luma zorrotza izan du beti; eta oraintxe arte irakurri izan ditugu «Enbata» astekarion bere artikulu zorrotzak eta irudikarizkoak.

Inork gutxiak aurkez dezake, Ipar zein Hego Euskal Herrian, Markek baino zerbitzu-orri bete-gorik.

Oharra

Idazlan hauek 1994. urtean Legasserren omenez prestatu zen ekitaldia zela eta argitaratu behar ziren. Omenaldia bertan behera gelditu zen. Marc Legasserren heriotza ezaguturik, argitaratzeko baimena eman dute egileak.